

Espainiako Hiri Agendaren tokiko ekintza planen proiektu pilotuak

Irailaren 13an honakoa argitaratu zen EAOn: **TMA/957/2021 agindua, irailaren 7koa, zeinaren bidez onesten baitira Espainiako Hiri Agendaren tokiko ekintza planen proiektu pilotuak egiteko laguntzak arautzeko oinarriak eta diru-laguntzak norgehiagokako prozeduraren bidez lortzeko eskabideak aurkezteko deialdia.** [Deialdia ikusi](#)

Laguntzen helburua da **Espainiako Hiri Agendaren tokiko ekintza planen proiektu pilotuak egitea finantzatzea**, epe labur samar batean bermatuko dutenak proiektu horiek bat datozela Espainiako Hiri Agendak proposatutako helburuekin, lan-metodologiarekin eta zeharkako ikuspegi estrategiko eta integratuarekin. Epe hori ezingo da urtebetetik gorakoa izan, deialdi hau argitaratzen denetik kontatzen hasita.

Honakoak dira **proiektu horien helburuak**:

- a) Espainiako Hiri Agenda ezartzeko prozesuari tokian tokiko ekintza-planak ematea, hiri-garapeneko berariazko politketan gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-jasangarritasuneko helburuak modu eraginkorrean eta lurralde horietan lurreratzeko.
- b) Eredu eta gida gisa balio ahal izatea, esperientzia pilotu gisa, interesa duten beste toki entitate batzuek beren ekintza-planak egin ditzaten ziurtasunez eta eraginkortasunez, epe nahiko laburretan.
- c) Materialki landu daitezkeen proiektu eta jarduera zehatzen hazitegi bat edukitzea, Espainiako Hiri Agendak edozein udalerritako hiri-eremuetan lan egiteko duen ahalmena ikusarazteko, tamaina edozein dela ere, zeharka eta modu integratuan, ikuspegi estrategikoarekin eta parte-hartze zabalena bermatuko duen gobernantza-eredu baten bidez, aurreikusitako denbora-muga, erabilgarri dauden finantzaketa-iturriak eta eragile desberdinak alde batera utzita. Oinarri hauetan deskribatutako laguntza-programak “hiri- eta landa-arloko agendari, despopulazioaren aurkako borrokari eta nekazaritzaren garapenari” buruzko 1. palanka politikaren helburu orokorrak lortzen laguntzen du, eta, zehazki, Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 2. osagaiaren 6. inbertsioa “Espainiako Hiri Agenda inplementatzea: Hiria Birgaitzeko Plana” deiturikoa, lortzen laguntzen du.

2021eko ekitaldian izapidetuko da, **hogei milioi euroko gehieneko zenbatekoarekin**, eta Espainiako Hiri Agendaren proiektu pilotuak egiteko laguntza-programari buruzko 17 50 10 260A 764 aurrekontu-partidan (2021eko Estatuko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitakoak) esleitutako kredituen kargura finantzatuko da.

Eskabideak agindu honen eranskinean aurreikusitako edukiaren arabera aurkeztuko dira, **gehienez ere hogeita hamar egun naturaleko epean, deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera**, eta Alkatetzaren titularrak, toki entitateko lehendakariak edo dagokion elkartearen ordezkariak edo kasu bakoitzean eskuordetutako pertsonak sinatuko ditu.